

MERKATUAREN SEKMENTAZIOA

1-Zein da zure bezeroa?

Gure programa ikusle gazteei zuzenduta dago, eguneroko bizitzan arazo desberdinen aurrean topatzen direnak, baita arazodun pertsona hauei laguntza eman nahi dietenak ere.

Gure proiektua gazteengana bideratuta dago, gazteek manipulatzan dituzten gailu mugikorretan erabiltzen delako, eta app-aren erabilera nagusia arazo sozialak partekatzea eta laguntza jaso ahal izatea denez, arazo horiek normalean gazteek bizi hoi dituztenak izaten dira, eta, batzuetan, pertsona talde berak laguntzea bilatzen dugu; horregatik, gazteak izango lirake erabiltzaile nagusiak.

2-Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Gure proiektuaren erabiltzaileak merkatu masibora bideratuta daude, eta gure ustez hau da talderik egokiena segmentu desberdinetan, laguntza bera eskaini nahi baitiegu pertsona talde berari, kasu honetan, gazteei.

Aplikazioaren barruan bi multzo ezberdin daude, laguntza bilatzen dutenak eta laguntza emateko prest daudenak. Lehenengoek foro baten tankerako galderak izango dituzte galdera egiteko, eta laguntzaileak erantzun ahal izango dute, eta kontseiluaren edo asistentziaren erabilgarritasun-sistema baten bidez sailkatuko dira.

Ezaugarri komunak dituzte gure erabiltzaileek, gailu adimendunen gaineko kontrola, sare sozialen gaineko kontrola eta, ondorioz, sare sozialen erabileraren esperientzia. Aplikazioaren anonimotasunak konfiantza berezia emango lioke, inor ez litzatekeelako gai izango galderaren egilea nor den jakiteko, eta hori, oro har, oso erakargarria da gazteentzat.

